

BANDOA

ANDRA MARI ETA SANTA EUFEMIA JAIAK

- **SASTAR BATZE ZERBITZUA**

Irailaren 7tik 16ra: **14:00etatik aurrera**

Irailaren 9an: **Ez da sastarrik batuko**

Irailaren 17tik aurrera:

Urtean zehar egiten dan moduan: Zapatuetan: 14:00etatik aurrera

Beste egun guztietan: 19:00etatik aurrera

- **TRAFIKOA**

- Jaietan **kotxerik ez erabiltea** eskatzen da, eta **jai gunean oinezkoei lehentasuna emotea**.
- **Bermibusa**: irailaren **7an, 11n, 12an, 13an, 14an** eta **15ean** egongo da.
- **Bizkaibus geralekuak**: irailaren 4tik 18ra, Gernika-Lumotik doazen autobusen geralekua, **Santamañe** kalera aldatuko da. Mungiatik Bilbora edo Bakiora doazen autobusen geralekua **Zubiaur tar Kepa** kalekoa (Azoka parean) izango da.
- **Taxi geralekua**: irailaren 4tik 18ra, **Kasinoaren ondoan** egongo da, lehen egoten zan lekuan.
- Artzako kaia jai-gunea izango danez, **Artzako biribilgunetik Lamerara eta portura joateko sarrerea itxita** egongo da irailaren 4tik 18ra.
- **Zama-lanak**: **08:00etatik 12:00etara** izango dira. **12:00etan Lamera-Portuzarra** gune guztia **hutsik** egon beharko da, eta ezin izango da autorik atara bertatik, ezta gune horretan aparkatuta euki be.

- **TALKO HAUTSAK**

- **Talko hautsak** botatea **galazota dago**, besteak beste, osasun arriskua sortzen dabelako birikietan, eta laban egiten danez, hainbat herritar jausten diralako.

- **SUAK**

Irailaren **8an eta 15ean**, suak egongo dira. **Auzokideei honeek segurtasun neurriak betetea eskatzen jake:**

- Balkoietako leiho eta ate guztiak zarratu eta pertsianak bajatuta eukitea.
- Kamaretako argizuloak ondo zarratuta dagozala konprobatzea.
- Ezin izango da balkoi eta terrazetara urten ikuskizuna amaitu arte.
- Teilatu edo terrazaren batera fuetarik jausi ezkerro, eta suak hartzen badau, edo suak hartzeko arriskurik balego, Udaltzaingoari deitu hainbat arinen **(tel.:092)**.
- Sutea sortu barria edo txikia bada, ura erabili (kableak edo tresna elektrikoak hurre egon ezean) edo mantakaz edo toailakaz amataten saiatu.

Bermeon, 2017ko irailaren 4an
ALKATEA